

HURBILPEN HOLISTIKO, ANALITIKO ETA HIZKUNTZA ARTEKOA

Tesiaren egilea: María Orcasitas Vicandi

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Hezkuntza Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak

Tesi-zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui eta Durk Gorter

Tesiaren laburpena:

Ikuspegi elebakarretik begiratuta, hizkuntzak kode autonomoak dira. Honela, hiztun eleaniztunen hizkuntzak entitate bereizi moduan ulertzen dira. Ikuspegi honek, alabaina, ez du hiztun eleaniztunon hizkuntza-erabilera zuzen islatzen. Horregatik, azken urteetan, hizkuntzen ikaskuntzan eredu berriak nagusitzen ari dira. Hain zuzen ere, eleaniztunengan naturalak diren hizkuntza-erabilera malguak islatzen dituzten ereduak.

Tesi lan honetan, idazle eleaniztunen hizkuntza-erabilerak aztertzen ditugu bi ikerketa nagusiren bitartez eta «Focus on Multilingualism» (Cenoz eta Gorter, 2011, 2014) eredu eleaniztuna erabiliz. Eredu horrek, eleaniztunon hizkuntza-erabilera modu holistiko batean aztertzeko beharra azaltzen du hiru dimentsiotan oinarrituz: hiztun eleaniztuna, hiztunon erreperitorio linguistiko osoa eta testuinguru soziala.

Lehenengo ikerketan, DBHko 4. mailako 133 ikasleren testuak aztertu genituen zuzentasun linguistikoa xede genuela. Honela, ikasleok euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzitako 399 testu bi errubrika desberdinen bitartez aztertu genituen, ondorengo ikerketa-galdera nagusi bati («Nolakoak dira euskara, gaztelania eta ingelesaren arteko harremanak zuzentasun linguistikoari dagokionez?») eta horren sei azpialderari erantzunez.

Bigarren ikerketan, ordea, aztertu genuen ikasle hauen hizkuntzen arteko elkarreragina, hirugarren hizkuntzaren (ingelesaren) jabekuntzan. Honela, ingelesez idatzitako 133 testuak modu kuantitatibo eta kualitatibo baten bitartez aztertu genituen bigarren ikerketa-galdera nagusiari («Nolako da hizkuntzen arteko elkarreragina hirugarren hizkuntzaren (ingelesaren) idazketan?») eta horren bi azpialderari erantzunez.

Lehenengo ikerketaren emaitzek azaldu zutenenez, zuzentasun linguistikoari dagokionez, idazle eleaniztunen indargune eta zailtasunak antzekoak dira hiru hizkuntzetan, ikasleek erabiltzen dituzten estrategia desberdinak direla medio. Honela, hizkuntzen arteko harremanak, maila desberdinetan aurkitu genituen

neurri holistiko eta analitiko desberdinak erabiliz. Hori dela eta, jakin genuen, ikasle eleaniztunon kasuan, hizkuntzen ikaskuntza ez dela modu isolatuan gertatzen, eta hizkuntzen arteko harremanak modu desberdinetan eta indar desberdinekin gertatzen direla.

Bigarren ikerketaren azterketa kuantitatiboak azaldu zuenez, ikasle eleaniztunek modu sistematikoan erabiltzen dituzte haien lehen eta bigarren hizkuntzak (euskara eta gaztelania), hirugarren hizkuntzaren (ingelesaren) idazketan. Honela, argi geratu da hizkuntzen tipologia eta gaitasun-maila bezalako aldagaiek eragin esanguratsua dutela ingelesaren idazketan. Gainera, analisi kualitatiboak azaldu bezala, ikasleek estrategia komunak modu sistematikoan erabiltzen dituzte, haien lehen eta bigarren hizkuntzak erabiltzeko orduan.

Oro har, hortaz, ikerlan honek hizkuntzen ikaskuntzan nagusi izan den ideologia elebakarra baztertu nahi izan du eta, aldi berean, ikasle eleaniztunon hizkuntza-erabilera naturalak jaso ditzakeen jabekuntza-eredu baten baliagarritasuna azaldu.